# Bergarako EA 21a

## 2014-2015 buletin digitala

negua

**Bergarako eskoletako ikasleek beste ikasturte batez Eskolako Agenda 21 proiektuan murgilduta dabiltza. Iaz landutako gaia Elikadura jasangarria izan zen, eta 2014-2015 ikasturtean gai berdinari eutsi eta hartan sakontzea erabaki da. Izan ere, Elikadura jasangarriaren gaia oso konplexua da eta ikuspegi ezberdinetatik aztertzeko aukera eskaintzen du. Hala, landa eremuaren garrantzian oinarrituz, bertako ekoizpenaren eta kontsumoaren nondik norakoak aztertuko dira aurten. Horrez gain, herriko azoka ezagutu eta biziberritzeko lan berezia egingo da. Horrenbestez, ikasturtea hasi denetik egindakoen berri emateaz gain, neguan zehar osatuko den ibilbidearen aurreikuspena jasotzen da buletin honetan.**

### Proiektuaren protagonistak

**Ingurugela, Bergarako udala, 5 eskola eta 2.600 ikasle** inguru dira programa honen partaideak. Bakoitzak bere funtzioa betetzen du eta guztien artean udalerriaren garapen iraunkorrean aurrera egiten da.
Izan ere, udal ordezkari eta ikasleen arteko harreman zuzena ahalbidetzen duen heziketa programa da, hezkuntza komunitatearen partaidetza oinarrizkoa delarik. Horrekin batera, Ingurugelak beteriko funtzioa oso garrantzitsua da, ezinbestekoa gertatzen den aholkularitza eta koordinazioa eskaintzen baitu.



### Herriko diagnostikoa garatuz

**Elikadura jasangarriaren diagnostikoa** garatu ahal izateko, Bergarako ikasle eta irakasleek hainbat baliabide eskuratu dituzte. Arazik sorturiko materialen bitartez, gaiari modu teorikoan hurbiltzeko aukera izateaz gain, udalerriaren egoera ezagutzeko datuak eskuratuko dituzte. Finean, haur hezkuntzatik batxilergora eta orokortasunetik xehetasunera, neguan zehar garatuko den lan isila izango da.
Herriko diagnostikoa urtarriletik martxora burutuko den lana izango bada ere, Bergarako Eskolako Agenda 21aren partaide guztiak irailetik aurrera martxan dira. Tarte honetan, elikadura jasangarriaren inguruko ezagutzan sakontzearekin batera, ikasturtean zehar garatuko den dinamika zehaztu dute. Hori guztia burutu eta kudeatu ahal izateko, besteak beste, 2 formazio-saio (Landatur enpresak eskainitakoa eta Menditik DEBARROA Itsasora proiektuko "Gaurko nekazaritza" ibilaldi didaktikoa) eta 4 koordinazio-bilera ospatu dira.



### Azterketaren xehetasunak

Iaz bezala, Bergarako ikasle eta irakasleek Elikadura jasangarriaren diagnostikoa osatu ahal izateko bi saio burutuko dituzte aurten: "ikasi" saio teorikoa eta "ikusi" saio praktikoa. Horietan bereziki aztertuko dituzten gaien mamia, ordea, ezberdina izango da.
Hala, Ikasi saioa **bertako eta sasoiko produktuen ekoizpenean** oinarrituko da, haien **kontsumoa** ere aztertuko delarik. Ikusi saioa aldiz, **herriko azokan** gauzatuko da, hura bertatik bertara ezagutzeko baliagarria izango delarik.



### Eta Udaberrian zer?

Udaberrian aurrera joan ahala, Eskolako Agenda 21 programa loratu eta fruitu ikusgarrienak eskainiko ditu. Horretarako, negu hotzean ikasleek egindako lan isiletik ondorioztaturiko ideiak sortuko dira, haien arteko hautaketa burutuko da, eta azkenean, udaletxean ospatuko den Udalbatzar nagusian plazaratuak izango dira.

1. Herriko diagnostikoa.
2. Egoera hobetzeko proposamen eta konpromisoen sorrera.
3. Sorturiko proposamen eta konpromisoen arteko aukeraketa: Eskolen Arteko Foroa.
4. Lehenetsitako proposamen eta konpromisoen plazaratzea: Udalbatzarra.

Bergarako Udala

# Bergarako EA 21a

## 2014-2015 buletin digitala

invierno

**Un curso más, el alumnado de Bergara está inmerso en el proyecto Agenda 21 Escolar. El tema estudiado el pasado año fue la Alimentación sostenible y durante el curso 2014-2015 se ha decidido continuar trabajando en este tema y profundizar algo más en diversos aspectos del mismo. La alimentación sostenible abarca multitud de aspectos, posibilitando su análisis desde diferentes puntos de vista. Así, partiendo de la puesta en valor del entorno rural, este año se analizará la producción y el consumo local. También se desarrollará un estudio específico del mercado local. Por tanto, además de los pasos dados desde el comienzo de curso, este boletín también recoge el desarrollo previsto durante el invierno.**

## Los protagonistas del proyecto

**Ingurugela, el ayuntamiento de Bergara, 5 centros escolares y alrededor de 2.600 alumnos** son los protagonistas de este programa. Cada cual cumple una función diferente y entre todos se logra avanzar hacia el desarrollo sostenible de cada municipio.

Se trata de un programa educativo que posibilita una relación directa entre la representación municipal y el alumnado, en el que la participación de la comunidad educativa es esencial. Además, la función desarrollada por Ingurugela resulta determinante, ya que ofrece la indispensable asesoría y coordinación entre las partes.



## Desarrollo del diagnóstico de cada municipio

El alumnado y profesorado de Bergara ha recibido diversos recursos didácticos para poder desarrollar un **diagnóstico de la alimentación sostenible**. Los materiales creados por Arazi, además de posibilitar un acercamiento teórico al tema, también guiarán al alumnado en la labor de recabar datos para conocer la situación del municipio. En definitiva, se trata de un trabajo que se va a desarrollar durante el invierno, desde la educación infantil al bachi-llerato, y desde las generalidades a los detalles.

El diagnóstico del municipio se va a desarrollar de enero a marzo, pero todos los participantes de la Agenda 21 Escolar de Bergara están en marcha desde el mes de septiembre. Durante este período han profundizado en el conocimiento de la alimentación sostenible y han ido fijando la dinámica que se va a desarrollar a lo largo del curso. Para poder adquirir y gestionar todo esto, se han celebrado 2 sesiones de formación (la impartida por la empresa Landatur y el paseo didáctico "Gaurko nekazaritza" –proyecto Menditik DEBARROA itsasora-) y 4 reuniones de coordinación.



## Detalles del estudio

Al igual que el pasado año, en el presente curso el alumnado y el profesorado de Bergara también va a desarrollar dos sesiones con el objetivo de realizar un diagnóstico en torno a La alimentación sostenible: la sesión teórica "aprender" y la sesión práctica "mirar". Sin embargo, los temas que se tratarán específicamente serán diferentes.

Así, la sesión teórica se centrará en **la producción local y de temporada**, al igual que en **el consumo** de esos productos. En cambio, la sesión práctica se desarrollará en el **mercado**, posibilitando un conocimiento más detallado del mismo.



## ¿Y en primavera qué?

Según avance la primavera, la Agenda 21 Escolar comenzará a florecer y finalmente ofrecerá sus frutos más llamativos. Para ello, surgirán ideas derivadas del trabajo realizado por el alumnado a lo largo del frío invierno. Se hará una selección entre todas ellas, y finalmente serán presentadas en un Pleno municipal que se celebrará en el ayuntamiento.

1. Diagnóstico del municipio.
2. Propuesta de ideas y adquisición de compromisos para mejorar la situación.
3. Selección de propuestas y compromisos: Foro Interescolar.
4. Presentación de las propuestas y los compromisos priorizados: Pleno municipal.